

Carmen Valls

• BARTZELONAKO OSASUN EKINTZA ETA PROGRAMEN ZENTRUKO ARDURADUNA •

«Lan osasunak generoaren ikuspuntua barneratu behar du»

■ ■ ■ Gizarte faktoreek emakumeen osasunarengan duten eragina azpimarratzen du, besteak beste, lanaldi bikoitzak edota irudi ona emateko derrigortasuna. ■ ■ ■ Vallsek emakumeen partaidetza zuzena nabarmentzen du, dagozkion arazoak ikustarazi eta aterabideen bilaketan laguntzeko. ■ ■ ■ Lan osasunak eta arriskuen prebentzioak halabeharrez generoaren ikuspuntua barneratu behar dutela dio.



MARISOL RAMIREZ

CARMEN Valls Bartzelonako Osasun Ekintza eta Programen Zentruko Emakumea, Osasuna eta Ongizate egitarauaren zuzendaria da. EILAS sindikatuak gonbidatuta, mediku katalan honek afizio eta ofizio duen *Emakumea eta lan osasuna* gaiari buruzko hitzaldia eskaini zuen atzo Bilbon.

■ **Sexuen arteko ezberdintasunek lanean ere eragina daukate; ziurtatu al daiteke berezitasunok bizitzeko zein gaixotzeko modu ezberdinak sorrazten dituztela?**

Bai, gizonak eta emakumeak modu ezberdinetan gaixotzen direlako hipotesia nahikoa frogatua dago. Baita, gaixotasun arrazoiengatik aurretiko jubilazioak izateko moduan ere. Halaber, 50 urtetik gora, emakumezkoek aukera gehiago daukate gaixotasun luze bat edo ezintasun bat izateko; %80 hezurgiharretako arazoengatik, %10 buruko gaixotasunenatik eta beste %10 gaitz kardiobaskularrengatik.

■ **Emakume edo gizon izatearekin bakarrik daukate lotura, ala lan eta bizi baldintzek ere badute zerikusia?**

Europako Iparraldeko herrialdeak —batez ere Suedia— eta Kanada dira lan osasuna generoaren perspektibatik gehien landu dutenak. Suedian egindako lan batzuek frogatu dutenez, emakumeak egiten duen lanaldi bikoitza arrisku bat da gaixotasun kardiobaskularrak pairatzeko. Baina, aldi berean, txikieria diruditen lan baldintza asko osasunerako arrisku izan daitezke: esate baterako, ez da kontuan hartzen behin eta berriz jasaten diren gainzama txikiek artikulazio bat kalte dezaketela.

■ **Badira beste gizarte faktore batzuk ere emakumearen osasunean eragin zuzena daukatenak.**

Horrela da, badira gizarte faktore batzuk emakumearen osasunean eragin zuzena

Gaixotasunak

«Gizonak eta emakumeak modu ezberdinetan gaixotzen direlako hipotesia nahikoa frogatua dago»

Faktore horiek guztiak garrantzitsuak dira eta kontuan hartu beharrekoak.

■ **Osasun arazoak sortzen dituzten arrazoi horietako asko sarri ikustezinak dira emakumetzat beraientzat ere.**

Bai, eta hori dela eta, kausa-ondorio harreman hori da azalera ateratu behar duguna. Horrela, lehenengo, lantoki edota ikastetxe bakoitzean osasun arriskuak identifikatu egin behar dira. Behin

identifikatu ostean, arriskuak prebenitu egin behar dira; hau prozesu bat da, eta langileek beraiek has dezakete prozesua. Arriskuak prebenitzeko osasun ikerkuntza langileekin egin behar da; hau da, lan osasunerako prebentzio gidak lantzeko, langileek erakutsi behar digute zeintzuk diren arriskuak, eta gero teknikariak arduratuko gara horiek neurtu eta nola prebenitu erabakitzeaz.

■ **Emakumeen artean lan arriskuak prebenitzeko generoaren ikuspuntua barneratu behar da?**

Emakumeei zuzendutako lan arriskuen prebentzioak generoaren ikuspuntua barneratu behar du, guri bereziki dagozkigun arazoez ahalik eta era orokorrean aritzea; kontuan hartu behar dira lan baldintzak eta lanetik kanpokoak (lanaldi bikoitza...), eta, era berean, osasun fisiko, psikiko eta sozialean agertzen diren eraginak.

Gorane Agirre
BILBO

Dantza garaikideak tarte bat izango du Korrika Kulturean

■ *Ekitaldi bi egingo dira, bat Zarautzen eta bestea Urnietan*

Erredakzioa / Donostia

BERREHUN ekitaldi kulturetik gora eskainiko ditu aurtien Korrika Kulturalak, eta horien artean nabarmentzekoak dira dantza garaikidea ardatz hartuta egingo diren biak. Lehenengoa otsailaren 27an izango da, larunbat honetan, Zarauzko Frontoi Zinematan. Bertan lau dantza talde ariko dira, eta tankera zein iraupen arrunt ezberdineko saioak eskainiko dituzte gaueko 22:00etatik aurrera.

Zarautzen, hurrenez hurren, Orro dantza taldea —hiru obra taularatuiko ditu—, Ekarle dantza taldea, Adeshoras taldea eta 2 Kate taldeko Dantzariak ariko dira.

Urnietan ere, Korrika Kulturalaren barruan, dantza garaikideari eskainitako ekitaldia gozatu ahal izango da. Martxoaren 20an izango da, ilunabarreko 20:00etan. Zarauzko egitarauaren oso antzekoa izango da bertan gozatu ahal izango dena. Obra bat gehiago ere ikusi ahal izango da Urnietan, Aukeran dantza taldeak Edu Muruamendiaren zuzendaritzapean taularatutako *Akilimaro* obra hain zuzen ere.

Dantza garaikidearen alde

«Dantza garaikideak bizi duen une latzen ginetik, Korrika Kulturalak bildu nahi izan ditu Euskal Herriko dantza talde desberdinak ikuskizun bikain eta bakan honetan», eman dute aditzera ekitaldion antolatzaileek, nolabait ere dantza garaikideari eman nahi izan dioten bultzada nabarmenduz.

Euskal geografia zabaleko taldeekin jarri dira harremanetan ekitaldion antolatzaileak bi saio hauek antolatzeko. Orro dantza taldea, esaterako, Bizkaiko da, Ekarle dantza taldea Lapurdikoa eta Adeshoras, berriz, Donostiakoa. Dantza saiootan arrunt musikagile ezberdinen doinuak entzun ahal izango dira, besteak beste, Amaia Zubiria eta Mozarten doinuak.